

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 592/2024 Erabakia, urriaren 15ekoa. Onespena ematea Elisa Irazu Mayayo izendatzeari Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren konfiantzako idazkari kargu gisa

Arabako Foru Aldundiaren gobernu, funtzionamendu eta lege araubideari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8 eta 24 artikuluetan eta foru kargu publikoen jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapenean jasorikoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko konfiantzako lanpostuak beteko dituztenak izendatzea.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuak proposatuta, martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8 eta 24 artikuluek aitortzen dizkidaten ahalmenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Elisa Irazu Mayayo izendatzea, behin-behineko langileek betetzekoa den Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren idazkari lanposturako (kodea: 1300.022).

Bigarrena. Erabaki honek 2024ko urriaren 14tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA